

ESKERRAK, URTEA AMAITU DA

Zeruko Argiarentzat ere urtea amaitu da. Urte gogorra izan bada ere, bizi da. Ezkerrak.

Maite dugunok ez genduke itzelen ikusi nahi. Ahal dugun arte bizitzaren lagunduko diogu bat ere eronkarik gabe.

Baia ez genduke inoiz ere lasai eta bapo bizitzen ikusi nahi, bat ere arriskurik eta erasorik gabeko bizitza erosoa.

Orregatik ausartegiak leundu eta zozoegiak baztatu egin behar gure aldizkari au euskaldunon kezka eta arazoan argibide izan dedin.

Inork ez dezala pentsa, beraz, idazkeragatik inor baztatsen denik. Euskaldunontzat interesgarri dan gutzia argitaratzen saiatzen gera goiko galbai estuak debekaten ez duen bitartean. Eta Erriarentzat kaltegarri edo allerrikako edo aspergarri dan gutzia zokoratzen, argitaratzeko lan oheak daudenean, behintzat.

Ugalduz doaz arpidedunak nahiz eta legearen isturak Erriari erantzun jator bat ematen galerazi. Nahiz eta zenbaiten azpi-jokoak gehiago zabaltea zaildu.

Batuentzat kristau kutsu aundiegia. Besteentzat, berriz, kristau bidetik okertua. Zenbaitentzat euskara batu egia, euskerantzia, alegia. Beste askorentzat, ordea batasun bide jakiniñ gabea, batasun bidean beldurtiegia, alegia.

Aintzakotzat artzoko kritikak ditugu, noski, guztiak. Baiña zozitaz arretan Z. A. bat ere irakurtzen ez dutenik egiten dituzte. Zozitaz arretan gabe. Azpi-jokokeriaren zorrunbillaon itsuturik.

Askatasun giroan, iritzi zabalean, euskalduntasun eta langillesanaren barruan lan egin nahi luke Zeruko Argiak. Gizatasun eta kristautasun lege jatorrean. Elizkeriarik, kristaukeriarik eta apaizkeriarik gabeko kristautasunean. Jantxokeriaren eta alderdikeriarik gabeko gizatasunean.

Betoz ahoz ahoko eta eskuz eskuko kritikak. Beraz kritika-lan eta iritzi desberdineko idazkia. Baiña inoiz ere eztabaida mingotsik. Ika-mika zipotzik. Pertsonetik eztenkada mingarrik.

Askatasun osoko iritziak, argibideak eta kritikak nahi ditugu. Ezten goxoz argitu, esnatu, eragin eta elkar goxatuko gaituzten lanak behar ditugu. Ez nahastu, mindu eta sakabanatuko gaituzten lanak.

Erri zeha jasoko duten gizarte, kultura, politika eta erlijio lanak. Baiña ahal denik eta euskerarik eta molderik errazanean. Ahal denik eta euskerarik batenean. Ahal denik eta erarik bienean. Ahal denik eta neuririk laburrean.

Ez ditakegu alde batera utzi errietako berriak eta kirolak ere ordea. Landu beharrean gaude bi alderdi oiek. Ez ote dira alfabetatze taldeetatik berri-emaille trebeak araberu?

Urte berri on bat opa diogu Z. Argiari. Eraberituko eta indarberituko dan urtea. Idazleak eta irakurleak eta arpidedunak indartuko zaizkion urtea. Era guztietako batasun eta askatasun giro jatorra eragingo duen urtea.

BIDE BAT BEHAR

Euskal kulturagintzan etengabe saiatzen garenok (andereño, albis-tari, idazle, irritzi-hiztun, alfabetatzaile) ongi dakigu euskeraren batasuna norainoko behar hertsia den. Gauza bera idakite, eta eguneroko datatzen, euskeraz mintzatzeko Eskal Herrian barrena ibiltzen direnek. Erderaz eta erdal kulturagintzan ari direnek ez bestek diote: «Poliki! Kontuz! Utz hori gerorako!».

Ez dago poliki joaterik, ordea. Dударik gabe polikiagi ari gara joaten; eta ez da gaurko kontua hau!

Bi arazo nagusi ditugu orain erabaki beharrez: 1) Aditza edo berboa. 2) Hitzegia.

Bigarrena piskanaka, baina deliberratik, egin behar den lana da. Ikastolotako hitzegia gutxienez (2.000 bat hitz) ahalik eta laisterrenrik finkatu behar da. Nork finkatuko? EUSKALZAINDIARI, noski.

Lan hau aurrera bide doa, eta astero biltzen omen da Euskaltzaindiak izendatutako Batzordea. Ikastolen arduradunek, bestealde, liburuak bikain bat prestatu dute honi buruz. Hitz batez, hitzegiaren lehenengo urratsa den ikastola-hitzegia aurrera doala dirudi. Laister burutuko ahal da! Eta argitara emango.

Aditzaren arazoa, berriz, gelditurik bide dago. Euskaltzaindiak izendatu zuten Batzordearen butzada, ez bide da ageri. Hots, aditzaren arazoa garbitzeko beharra ezin haundiagoa da.

Berriz ere: nork garbituko? Eta berriz ere erantzun berbera: EUSKALZAINDIARI garbitu behar du.

Noiz, ordea? Ez dut uste hauei hau ikaslotentzako hitzegiaren baina zailago denik. Benetan ez. Euskaltzaindiak, ordea, bildur da, itxura denez, aurrera jotzeko; eta euskalari batzuk ere bai.

gainerakoek zipitizki ez. Haur horiek, halere, Donapaleukoak eta Garruzeokoak dira; eta beren gorasok, hango nagusi guziek bezala, euskeraz badakite, eta ongi jakin. Baina etxen ez da egiten gaur, ezta Amikuzeko baserrietan ere.

Euskalkien bizitasunari buruz, hortaz, gaurko lapurtera hautatzen, gaur txit ahula den euskalki bat aukeratzeko genduke; eta ba dirudi gipuzkera litzakeala bidezkoago.

Literaturari begiratzan badiegu, berriz, azkeneko bi mendeotan gipuzkeraz (edo gipuzkera osotuz) idatzi da gehiena. Lapurterazko literaturaren isuri oparoa, 1789ko gertaerak eten zuten; eta orain dela mende pare batez geroztik, lapurtera «klasikoa» agortu egin da, bai liburuetan bai lapurteraren ahotan. Leizarraga, Atsular, Etxeberri, Gasteluzar, Haraneder, aspaldiko izenak dira. Barbier, Otsobi, Leon Leon, Soubelet, berriagoak dira, bai; baina ez dute inondik ere haien maila iritsi, ez mamiaz ez irakurleak eta jarraitzaileen kopuruaz; are gutxiago, noski, Hegoaldean. Lapurtera zaharraren joera ez da joera nagusia azken urteotako euskal literaturan.

Gipuzkerak eman ditu, aldiz, aspaldiko honetan, euskaltzalerik gehienak eta ugariena: orain dela bi mendez geroztik, eta literaturaren mailan, gipuzkera nagusitu zait lapurterari. Hitzkeraren aldetik oinarri bila abiatuz gero, hor ditugu, berriagorik aipatu gabe, Larramendi bera, Iturriga, J.B. Agirre, Larizabal, Kardaberatz; eta, batez ere, Mendiburu eta Gregorio Arrue, biak liburu askoren egile eta idazle jator.

Horago aipatu ditudanak aipaturik, gipuzkeraren aldeko joera honi tenk egiteko arrazoi sakonik ez da ageri; eta gure euskaltzalerik jantziarik argi-eta-garbi jakinarazia dute hau.

tzat hartzea. Baionako lanetan beretan (1903-1964) «dut, duk», eta abar, saila hartu zen ontzat (ez «det, dez», eta abar); eta «nuan» ekin batera «nuen» onhartu zen, eta gainerakoak.

Infinitiboa (ekar, gerta) eta partizipioa (ekarri, gertatu) berezterri, esate baterako, bidezko derizkiote gaur denek. Hots, berezketari hori gutxitzen egiten da gipuzkeraz; baina beti Iparraldeko euskaltzain.

Alderantziz, «esan du» eta «esan egin du» berezketak bizkaieratik hartu dugu.

ZER-NORK-NORI aditz-jokoetan gipuzkeraren paradigma proposatuz, beraz, ez da gipuzkera osoa ez soilik inoz proposatzen. Azkuek berak, bizkaitarra izanagatik, GIPUZKERA OSOTUA proposatu zuen beti. Eta «gipuzkera osotua» hitzek, aditari gazkiozkiarik, ZER-NORK- saillean gipuzkerazko formak gutxi gorabehera besterik ez du adierazten.

2) «Gipuzkera» deritzan euskalkia Nafarroan barrena ere hitzegiaren da. Barrankan, esate baterako, Zierdian, Olaztán, Altsatsuan, Bakalkoan, Etxarri-Aranatzen, Lizarragan, Dorraun, gipuzkera hutesz mintzaten da. Eta Nafarroako gainerako euskaldunak, fama denez, ez zaie gipuzkera zail gertatzen.

—oOo—

Euskaltzaleok zai gaude; eta gertu ere gaude, gehienok bederen, Euskaltzaindiaren erabakiak betetzeko. Berandu izan baino lehenago nahi genduke bide bat. Euskaltzaindiaren etsaiek, sasi-jakintsuek eta nolana hiko ultrek jo-ta-ke ekiten bait ditute beren anarkia.

Euskaltzaindiak du, beraz, azken hitza.

LARRESORO

—oOo—

—oOo—

Aurrera begira

Urtea bukatu da. Zerbait aundia gertatu da. Gehiago ez dugu ikusiko. Joan da betirako. Baiña garrantziko ez da iragan dan urtea, datorrena baizik.

Beharrezkoa da atzera begiratzea. Baiña areago aurrera begiratzea. Gizonok egiten dugun bezalako izango da mundua. Gu gera gizon oiek.

Ez lehengorik eta ez gaurkorik ontzat ematen ez diogun gizarte bizi gera. Gizona arrotz gertatzen dan giza-moldean. Gizonak, lehen-txeago edo geroxeago, errazteko edo nekezteko, baiña gizonak bere burua saltzen duen munduan. Baiña beti saldua.

Garrantzizkoa dugu lehengoa, ori bait da gure oraina, gure gaurra. Baiña geure geroa beharrezko dugu. Geure orainetik gero ortara joan behar dugu. Guk bakarrik gaurkotu dezakegun gero ortara. Guk, danok edo askok, baiña bakoitzaren erantzunkizuna alboratu gabe.

Bi jokabide ar ditezke gaurkotutako lehengoaren eta datorren geroaren aurrean. Gehienek geroa ukatzen dute. Ez, noski, beren iritzi eta ametsetan, ekintzetan baizik. Lehengoari lotuak daude.

Besteak, berriz, geroa gaurkotzen saltzen dira, egiazko gaur ori ahazturik.

Geroaren burrukan dagoen ezin nabarmena zuzitzeko bi era.

Ezertan sartu gabeak alde batera utzirik bitan zaitzen da gizartea

gaur: aurrerakoien eta atzerakoien artean ain zuzen ere. Baztertu ditugu ezkerre-eskubia itzak. Auek iragan berriko atzokoak ditugu. Auen aurretik liberalak edo konserbadoreak ziran. Lehentxeago klerikalak eta antikerikalak. Edo katolikoko edo protestante. Edo kristau edo moro. Edo Erromarrak edo barbaroak...

Betiko auzia dugu. Gaurkoa dan lehenago bat eta gaurko ez dan baiña gaurkoa behar lukean gero bat.

Gizona, gizon izango dan gizarte bat nahi dugu. Erri bakoitzak bere tokia izango duen gizarte bat. Baiña ortaroko guk gaur bizi dugun egunetik asi behar dugu. Ez, noski lehendik datorrigun gaurretik edo guk amesten dugunetik, guk gaur bizi dugun egiazko orainetik baizik.

Egiazko gaurrari buruz egindako azterketa eta kritikaren bidez bakarrik joan gintezke geroaren bila.

Egiazko gure gaur orren azterketa bakarrik jabetuko gera gizona eta Erriak salduak daudela. Eta guk egingo dugun gero ori zahar-tua eta atzertatu arkitu behar dute gure ondorengoek nahi eta nahi ez.

Zahartua eta atzertatua ain zuzen guk eskeinitakoa aztertzeko eta kritikatzeko gauzatu ditugulada, noski.

Egiazko geure egunetik amesten dugun geroaren atzetik guk, egindako au oso motz eta atzerakoi arkituko dutela ondorengoek.

ARANO

Aditzari buruz, beste problema askori buruz bezala, euskerak beditu lau euskalki nagusi: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, eta zuberera. Hauen artekoek (baxenabarreak, eta abar), literaturari buruz batez ere, itzalik ez dute. Hots, euskera IDATZIAREN batasuna behar dugu aurrenik.

Aditzari gogozkiolarik, halere, hautakizuna xinpleago da. Bizkaierak laguntzaile berezia du alegiazko adizkietan («egin»), eta horregatik zuberera baino ere urragun gertatzen da erdi bidetik. Ondorioa hau da: lapurtera hautatu behar da, ala gipuzkera.

Goazen orain xehekiago. Zein lapurtera? Zein gipuzkera? Zertan datza bien arteko desberdintasuna? Zein irizpide har gidarizat?

Ahal delarik, eta euskaldunen artean hesi bat sortzen ez delarik, ez dugu euskera idatzia larregi urrundu behar gaur euskeraz mintzo den herriaren hizkeratik. Nola mintzo dira gaurko euskaldunak gehienak, beraz?

Lapurtera «klasikoa» ahitua da: «derautz», «neraikon», «dakidikaio», eta abar, ez dira inun esaten. Lapurtera klasikoa lapurtera arkaikoa da aditari dagokionez.

Gaurko lapurtera eta zuberera, bestealde, oso osto gutxi erabiltzen dira. Lapurdi-ko itsasertzean erdira dago gutxi nagusiturik; eta euskera entzun nahi izatekotan, Sarara Senpere-ra jo behar da. Hazparna, jakina denez, baxenabarraz mintzaten da; eta gauza bertsua Beskoitzen, Mugerran, Itsasun, Makalan, eta abar. Zubereroan, berriz, denetara 16.000 lugon, Maulen (6.000) ez da euskeraz mintzaten; Atarratzen (2.000) arras gutxi. Barkoeta da herri koskorren artean euskaldunena.

Baxenabarrea bera (kontuz!) arras ahulduta dago gazteen artean. Lehengo egunean bide zuzenetik jakin dudenez, Donapaleuko ikastolan (26 haur) BIK dakite euskeraz hitzgiten, eta beste bik ulertzen;

Beti aditzari gogozkiolarik, zertan datza lapurteraren eta gipuzkeraren arteko desberdintasuna? Puntu honen erantzunean kontuz ibili behar da.

Lehen-lehenik, desberdintasuna TXIKIA DA; eta aditz-kera edo joko eskuarretan desberdintasunik ez dago: naiz, dezaket, gaitu, eta abar. Aski da Kampeon-en Gramatika aztertea, esate baterako, horretaz jabetzeko.

La puntu nagusi bakarra honetan datza: dizut / dautzut, zigun / zeukun, dizona / diozan edo diezon, eta abar. Hau da: ZER-NORK-NORI elementotik dituzten formetan bakarrik. Azkuek berak esaten zenez, bestealde, baita Baxenabarren ere «nion» entzuten da askotan, «nakon»en beharrean; edo «diot»-«dakot»en beharrean, eta abar. Forma gutxitan dugu istilua, beraz, oro har.

Anitz aldiz aipatu izan da (eta neronek ere bai) gipuzkerazko paradigma duen akatsa. «Ekarri diat»-«sakuntzak bi gauza desberdin adieraz ditzake: «nik hiri ekarri dau» (L), alegia, nik hiri ekarri zerbait; ala, hika mintzatzu, «nik (txerara...) zerbait ekarri diat» (L), alegia, nik zerbait ekarri. Lapurterek biak beretzen ditu: «ekarri diat» / «ekarri dau».

Aski da akats hau gipuzkera baztertzeko? Ez ahal da akats larri bat «gari» (trigo, blé) eta «gari» (delgado, mince) ez berezete? Halaz ere, Iparraldeko hiztunen eta literaturaren kaltetan, kh, lh, rh, nh, th, ph, guztiak bazterreratzen da erabaki da batasunaren fagoretan.

—oOo—

Bi ohar egin behar dira hemen, ene uestez, ideiak garbi utzeko:

1) Gipuzkeraren aditz-jokoan onharturik ere (dizut, nizun, genizaiola, eta abar), ez da inoz proposatu gipuzkera hutsa bere horretan, eta behar dituen eraskinak gabe, on-



Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada Plomonia).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Azterrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez gaidetu
Salmetan (ale bakoitza)	6 pezeta